



ONDARROAKO UDALA



UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Batzarra:	Ez-Ohiko Udalbatzarra
Deialdia:	Lehena
Eguna:	2015-10-22
Ordua:	18:00- 18:10
Tokia:	Kofradi Zaharreko 2. Solairuko areto nagusian.

Bertaratuak:

- JOSU ARRIZABALAGA BADIOLA.
- RAKEL ELU BENGOETXEA
- ZUNBELTZ BEDIALAUNETA IBAIBARRIAGA
- VISIT BEIRO BADIOLA
- TXOMIN ETXABURU SOLABARRIETA
- UNAI BARRENETXEA GURRUTXAGA
- IÑAKI LERSUNDI ARRIZABALAGA
- MARIA DOLORES ETXANO VARELA
- MIREN AGURTZANE URRESTI AZPIRI
- ADRIAN OSA IBARLOZA
- AGURTZANE IRIONDO LEJARDI.

Ez bertaratuak:

- IBON ARANBARRI ETXABURU.
- ENERITZ BASURKO PAGOAGA

Idazkaria: Garaine Ajuria Lasuen

Jarraian, Alkateak, azaroaren 28ko 2568-1986 Errege Dekretu bidez onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma badagoela egiaztatu du, eta batzordea eratutzat jo da.

Ondoren, gai-zerrendako aztergaiak aztertzen hasi dira.

1.- Jon Kirru Iparragirre Burgoa jaunak 3539 zenbakidun aurkeztutako mozioa.

Alkate jaunak aditzera eman du gaurko egunean Lea Artibai Udal guztietan ondorengo mozioa onartu egingo dela, segidan hitza eman dio Jon Kirru Iparragirre jaunari mozioa irakurtzeko:

"ONDARROAKO UDALARI

Egun badira oraindik oso gaixorik eta kartzelan jarraitzen duten presoak. Egoera honek, beren egoera fisikoa eta bere senitartekoen ezinegona okertu eta areagotzen du. Pertsona gisa eta preso gisa zor zaizkien eskubideak ukatzen ditu.

Gaixo diren preso hauek, sufritzen dituzten gaixotasunei behar bezalako jarraipena egitea bateraezina da espetxean egotearekin, honako arrazoi hauengatik: espetxeak ezin duelako eskaini tratamendu bereziturik; gaixotasun hauek arreta zorrotza behar dutelako; kartzelan egonik, balizko larrialdi baten aurrean erantzunik emateko gaitasun ezagatik.

Eusko Legebiltzarrak berak ere, berauen askatasuna behin baino gehiagotan eskatu du. Ekberatze hori emanten ez den bitartean, Euskal Herriko kartzelaren batean mantendu beharko litzateke.

Ikusirik, Ibon Iparragirre euskal presoak, bestelako auzibideengatik Euskal Herrira ekarri dutela, aukera paregabea izango litzateke, bertan gelditzea. Horrela bere gaixotasunak behar bezalako arreta izango duelako.

Hau guztia kontuan harturik Ondarroako udalak honako hau adierazten du:

- 1.- Udal honek bere kezka adierazi nahi du Ibon Iparragirre euskal preso gaixoak pairatzen duen egoera larriaren aurrean.*
- 2.- Udal honek Ibon Iparragirre euskal presoak Euskal Herriko kartzelaren batean mantentzea eskatzen du.*
- 3.- Udal honek, Ibon Iparragirre presoak Osakidetzan edo bere gertuko ta konfiantzazko mediku batek bere osasun egoera artatu dezala eskatzen du.*
- 4.-Udal honek, guzti hau exijitzeko, dei egiten du, datorren larunbatean, eguerdiko 12etan "etxean nahi dugu" lemapean egingo den kontzentrazio ixilera.*

Ondarroan, 2015.eko urriaren 16^a

Aho batez onartu egin dute Udalbatza kideek.

Osoko bilkura amaitutzat eman dut alkatearen oniritziarekin, eta bertan aztertutakoa eta hartutako erabakiak jasotzeko honako akta hau egin dut.

IDAZKARIA

